JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO, **CONSEJERO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y JUSTICIA Y SECRETARIO DEL GOBIERNO VASCO**

**CERTIFICO:**

Que el Gobierno Vasco, en sesión celebrada el día 23 de diciembre de 2013 adoptó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

PROPUESTA DE ACUERDO POR EL QUE SE PONEN EN CONOCIMIENTO LAS ORIENTACIONES GENERALES DE LA PLANIFICACIÓN ESTRATÉGICA PLURIANUAL 2014-2017 DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO.

I. La Ley 1/2007, de 22 de febrero, de Cooperación para el Desarrollo, a partir de ahora LCD, establece los principios, objetivos, prioridades, valores transversales, las fórmulas de planificación estructural y coyuntural, la determinación básica de los instrumentos y un esquema de organización administrativa de la cooperación para el desarrollo en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

II. En el ámbito de la planificación estructural, el artículo 17 de la citada norma regula, desde aspectos diversos, lo que se denomina "*Plan Director Cuatrienal*". Este Plan, según se establece en el párrafo 1 del citado precepto, es la "*máxima expresión político-técnica de la cooperación para el desarrollo en la Comunidad Autónoma de Euskadi*" y, en cuanto tal, "*desarrollará los contenidos de la presente ley, de manera que se traduzcan en objetivos, instrumentos y propuestas operativos."*

III. La formulación del Plan Director Cuatrienal requiere la aprobación, con carácter previo, de las "*Orientaciones Generales de la Planificación Estratégica Plurianual*" a las que el referido instrumento deberá someterse. Desde el punto de vista del procedimiento, la aprobación de las O*rientaciones Generales* deberá seguir los siguientes trámites: la Dirección de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo procederá a su elaboración, debiendo ser sometidas a la consideración del Consejo Rector de la Agencia, que lo elevará al Gobierno (artículos 10.ñ) y 11.2.h) de la Ley 5/2008, de 19 de junio, por la que se crea y regula la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo que, las remitirá al Parlamento Vasco como comunicación para su debate y aprobación (artículos 11.1 y 17.2 de la LCD).

IV. El Gobierno Vasco ha recibido de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo un documento contenedor de las Orientaciones Generales de la Planificación Estratégica Plurianual 2014-2017 de Cooperación para el Desarrollo. El Gobierno las ha analizado y valorado en sus justos términos y ha llegado a la conclusión de lo acertado de su contenido por cuanto se adecuan a los principios y objetivos de carácter general de la LCD, a las conclusiones y recomendaciones derivadas del informe de evaluación del Plan Cuatrienal 2008-2011, a la planificación del ejecutivo en la materia y a la coyuntura socio-política, si bien entendida y proyectada en el tiempo, a los plazos de ejecución que en Plan que en su momento se apruebe.

V. La Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo está adscrita a la Presidencia del Gobierno en virtud de lo dispuesto en el Decreto 20/2012, de 15 de diciembre, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

Por todo ello, a propuesta del Lehendakari, previa la correspondiente deliberación, el Consejo de Gobierno, previa deliberación, adopta el siguiente

ACUERDO

"Primero.- Tomar en conocimiento, en consonancia con las consideraciones que se recogen en el apartado IV de la parte expositiva de este Acuerdo, las Orientaciones Generales de la Planificación Estratégica Plurianual 2014-2017 de Cooperación para el Desarrollo que se incluyen en documento anexo.

Segundo.- Remitirlas al Parlamento Vasco, como comunicación para su debate y aprobación ante la Comisión de Derechos Humanos, Igualdad y Participación Ciudadana, en cumplimiento de lo previsto en los artículos 11.1 y 17.2 de la Ley 1/2007, de 22 de febrero, de Cooperación para el Desarrollo".

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación en Vitoria-Gasteiz, a 30 de diciembre de 2013.

Nik, JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIOk, **HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIAKO SAILBURU ETA** EUSKO JAURLARITZAREN IDAZKARI naizen aldetik,

## ZIURTATZEN DUT:

Eusko Jaurlaritzak, 2013ko abenduaren 23ko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

ERABAKI-PROPOSAMENA, GARAPENERAKO LANKIDETZAREN 2014-2017 URTE ANITZEKO PLANGINTZA ESTRATEGIKOAREN JARRAIBIDE NAGUSIAK JAKITERA EMATEKO DENA.

I. Garapenerako Lankidetzaren otsailaren 22ko 1/207 Legeak (aurrerantzean GLL) garapenerako lankidetzak Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan dituen printzipioak, helburuak, lehentasunak, balio transbertsalak, plangintza estruktural eta koiunturalaren formulak, baliabideen oinarrizko zehaztapena eta administrazio-antolamenduaren eskema bat ezartzen ditu.

II. Plangintza estrukturalari dagokionez, aipatu arauaren 17. artikuluak hainbat alderditatik arautzen du "Lau urterako gida-plana" delakoa. Artikulu horren 1. paragrafoan ezartzen denaren arabera, plan hori Euskal Autonomia Erkidegoko garapenerako lankidetzaren adierazle politiko eta tekniko gorena da, eta horregatik, legeko edukiak garatuko ditu, helburu, tresna eta proposamen operatiboak sortzeko.

III. Baina lau urterako gida-plana formulatu aurretik, urte anitzeko plangintza estrategikoaren jarraibide nagusiak onartu behar dira, jarraibide horiek bete beharko baititu aipatu planak. Prozeduraren ikuspegitik, Jarraibide Nagusiak onartzeko, honako izapide hauek egin behar dira: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendaritzak jarraibide horiek landuko ditu; horiek Agentziaren Kontseilu Errektoreak aztertu beharko ditu, eta, ondoren, kontseilu horrek Jaurlaritzari aurkeztuko dizkio (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu era arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legea, 10.ñ) eta 11.2.h) artikuluak), eta horrek Legebiltzarrari bidaliko dizkio komunikazio gisa, bertan eztabaidatzeko eta onesteko (GLLren 11.1 eta 17.2 artikuluak).

IV. Eusko Jaurlaritzak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak bidalitako dokumentu bat jaso du; zehazki, Garapenerako Lankidetzaren 2014-2017 Urte Anitzeko Plangintza Estrategikoaren Jarraibide Nagusiak biltzen dituen dokumentua. Jaurlaritzak jarraibide horiek behar bezala aztertu eta baloratu ditu, eta ondorioztatu du ezen, jarraibide horien edukia egokia dela, egokitu egiten baita, GLLren printzipio eta helburu orokorretara, 2008-2011 Lau urteko Planaren ebaluazio-txostenaren ondoriozko emaitza eta gomendioetara, gai horretan Gobernuak duen plangintzara, eta koiuntura soziopolitikora, baita, denboran aurrera eginda, onartzen den planaren betearazpen-epeetara ere.

V. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia Jaurlaritzaren Lehendakaritzari atxikita dago, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz.

Horregatik, lehendakariaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak, aurrez gaia eztabaidatu ondoren, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

"Lehenengoa.- Erabaki honen azalpen-zatiaren IV. atalean jasotzen diren kontsiderazioekin bat etorriz, jakitera ematea Garapenerako Lankidetzaren 2014-2017 Urte Anitzeko Plangintza Estrategikoaren Jarraibide Nagusiak (eranskinean jasota daude).

Bigarrena.- Jarraibideak Eusko Legebiltzarrera bidaltzea, komunikazio gisa, Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Batzordearen aurrean eztabaidatu eta onartzeko, betiere, Garapenerako Lankidetzaren otsailaren 22ko 1/2007 Legearen 11.1 eta 17.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz".

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut Vitoria-Gasteizen, 2013ko abenduaren 30ean.

# PROPUESTA DE ORIENTACIONES GENERALES DE LA PLANIFICACIÓN ESTRATÉGICA PLURIANUAL 2014-2017 DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

El Gobierno Vasco, en el ejercicio de sus responsabilidades, quiere, a través del contenido de este documento, plasmar su filosofía sobre la cooperación para el desarrollo que, a través de unas Orientaciones Generales de planificación estratégica, habrá de materializarse en el contenido del Plan Director Cuatrienal 2014-2017 (PDC). Las Orientaciones Generales de la Planificación Estratégica Plurianual (OGPEP) describen tanto el lineamiento estratégico como el económico al que el PDC deberá ajustarse en su formulación y no sólo en lo que respecta a las acciones que deban llevarse a cabo por los órganos competentes en la materia, básicamente la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, sino a toda aquella actividad gubernamental que corresponda a otros departamentos y/o entes del Gobierno que desarrollan actividades vinculadas o vinculables a la cooperación para el desarrollo, con el objetivo de dotar a todas las iniciativas de un marco de coherencia. A continuación se plasman un conjunto de consideraciones, reflexiones y directrices que habrán de ser tenidas en cuenta, en tanto que constitutivas de orientaciones generales, en la elaboración del Plan Director Cuatrienal 2014-2017 de Cooperación Vasca para el Desarrollo.

1. La identidad que marca la actividad del Gobierno Vasco en el ámbito de la cooperación para el desarrollo y su necesaria planificación estratégica no es reflejo de una reflexión coyuntural, ni siquiera de carácter gubernamental. Ha sido el Parlamento Vasco, órgano de la representación popular, el que a través de diversas normas de rango de Ley ha establecido el marco filosófico e ideológico al que la cooperación para el desarrollo ha de atenerse en la ejecución de sus políticas: Ley 1/2007, de 22 de febrero, de Cooperación para el Desarrollo, Ley 14/2007, de 28 de diciembre, de Carta de Justicia y Solidaridad con los Países Empobrecidos y, finalmente, la Ley 5/2008, de 19 de junio, por la que se crea y regula la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo. Estas normas identifican, tanto los aspectos identitarios de la cooperación vasca para el desarrollo, como los competenciales básicos, integrando al Parlamento Vasco como colaborador necesario al ser el órgano que ha de aprobar las OGPEP.

2. Se ha reflejado con anterioridad que la acción política en el ámbito de la cooperación para el desarrollo, viene determinada por las normas referidas aprobadas por el Parlamento Vasco. La gestación de estas normas tiene su origen en una demanda colectiva que nace de un compromiso social adquirido por la sociedad vasca a través, básicamente, del trabajo de las ONGD y de movimientos de solidaridad. Este compromiso y este impulso, reconocidos por el legislador, ha situado a estas organizaciones en una posición de elevada responsabilidad en lo que se refiere a su capacidad para incidir de manera directa en el diseño y en la ejecución de las políticas gubernamentales en la materia a través, entre otras, de su participación, paritaria, en el Consejo Vasco de Cooperación para el Desarrollo y de su incorporación al Consejo Rector de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, máximo órgano de gobierno y con capacidad ejecutiva. La existencia de un amplio y diverso tejido asociativo de la sociedad civil en este ámbito, a través del que se desarrollan y ejecutan la mayor parte de los instrumentos de cooperación, es una de las señas de identidad de la cooperación vasca para el desarrollo. Impulso, compromiso, reconocimiento y responsabilidad son conceptos definitorios de la estrecha relación de la sociedad civil en el ámbito directivo y ejecutorio de estas políticas y una de sus incuestionables fortalezas.

3. Los cambios operados en la globalidad del mundo hacen necesaria una adaptación de las estructuras y de los principios de decisión y una adecuación de las respuestas necesarias a las demandas reales. Por ello, en el ámbito de ordenamiento jurídico vigente y, en su caso, con las modificaciones que pudieren ser introducidas, deberá desarrollarse un proceso de reflexión para garantizar la practicidad esencial de las políticas públicas y proponer las medidas normativas y estructurales que posibiliten una optimización del alcance de los objetivos a través de una mejora sustantiva de los procedimientos. En este sentido, desde la especificidad de la cooperación descentralizada y desde la propia identidad de la cooperación vasca, y con una visión crítica, se hace necesaria su adecuación y articulación con el contexto mundial actual, haciendo especial seguimiento de las tendencias globales que se están generando. Cabe señalar, especialmente, el proceso de la Agenda Post 2015, tras los Objetivos de Desarrollo del Milenio, el proceso sobre la financiación de la Ayuda Oficial al Desarrollo, el proceso en torno a la eficacia de la ayuda tras el Foro de Busan, el desarrollo y la consolidación de la cooperación descentralizada; la aparición

de los países emergentes en el ámbito de la cooperación; la irrupción de nuevos actores en cooperación; y otros grandes temas como fiscalidad y desarrollo; cambio climático, ecosistemas y balance energético, etc. Desde su especificidad e identidad propia, la cooperación vasca se está resituando en el cambio de paradigma que está operando actualmente en la cooperación para el desarrollo a nivel global.

**4.** La Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo se inserta en el entramado de principios y estructuras establecidos en la Ley 1/2007, de 22 de febrero, de Cooperación para el Desarrollo, y su actividad se basa en un amplio catálogo de principios y valores –recogidos en la Ley-, desplegándolos en la práctica. Ello hace que la cooperación vasca para el desarrollo se convierta en un componente fundamental de la "*Estrategia Basque Country*". Teniendo esto en cuenta la acción de la Agencia se constituye en un elemento de relevancia en la proyección internacional de Euskadi, incluida en el área de responsabilidad de la acción exterior, a través de la transmisión de la solidaridad individual, colectiva e institucional de la sociedad vasca a favor de la erradicación de la pobreza estructural y la eliminación de la desigualdad en el mundo.

**5.** En lógica coherencia política, la acción de gobierno en la materia y, por ende, su planificación estratégica, debe procurar el alcance de los principales objetivos que el Ejecutivo ha reseñado en su Programa de Gobierno 2012-2016:

**a)** Profundizar en la eficiencia de la política de cooperación al desarrollo y en su vinculación a la promoción y la defensa de los derechos humanos, poniendo en valor la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo y aprobando un nuevo Plan Estratégico y Director de Cooperación para el Desarrollo.

**b)** Estrechar relaciones con la Unión Europea, Organismos Internacionales y Agencias de Cooperación Internacionales para desarrollar actividades conjuntas y posibilitar nuevas vías de financiación y de cooperación con las organizaciones vascas.

**c)** Fortalecer el tejido asociativo, impulsando el Consejo Vasco de Cooperación.

**d)** Compartir "buenas prácticas" en cooperación, fomentando iniciativas de carácter innovador e intensificar la coordinación para mejorar la cooperación, reforzando la Comisión Interinstitucional de Cooperación.

En este ámbito de la acción gubernamental, estas Orientaciones Generales, tal y como se ha anticipado, deberán servir de marco de referencia, para las políticas que, en el ámbito de sus respectivas competencias, lleven a cabo los órganos de la Administración General e Institucional responsables de áreas vinculadas o vinculables a la cooperación para el desarrollo como juventud, salud, igualdad de género, política lingüística, agua etc. para la propia consolidación y transversalización de esas políticas y para reforzar su interacción y los espacios de coordinación.

**6.** La optimización de los resultados en el alcance de los objetivos cuya consecución se plasma en una planificación estratégica de esta naturaleza requiere de compromisos coordinados entre los agentes de cooperación definidos en la Ley 1/2007. Entre los que tienen naturaleza pública se considera de suma importancia reforzar la coordinación entre el Gobierno Vasco, los Entes Forales, los Ayuntamientos de las capitales de los Territorios Históricos así como con sus propias asociaciones –EUDEL y Euskal Fondoa-, generando sinergias en el contexto del ejercicio de autonomía de cada institución. La Comisión Interinstitucional de Cooperación al Desarrollo y las mesas técnicas creadas *ad hoc* son un espacio privilegiado de trabajo en común, pero se potenciarán también otros espacios de diálogo y colaboración para propiciar acciones conjuntas entre varias entidades.

**7.** La Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo seguirá participando de un modo habitual en los espacios de encuentro y coordinación descentralizada a nivel estatal, tanto con otras Comunidades Autónomas como con la Administración del Estado, así como desarrollando un seguimiento de las políticas e iniciativas internacionales buscando la coordinación y el alineamiento con las mismas, buscando y reivindicando su propio espacio.

**8.** Partiendo de la valiosa y altamente valorada experiencia acumulada, la cooperación para el desarrollo aspira a consolidarse como una política pública coherente, coordinada y de calidad de valor para el país y su ciudadanía,

comprometida con la erradicación de la pobreza estructural, la transformación social y el desarrollo humano sostenible, con las siguientes dimensiones:

**a)** Ha de ser solidaria: reconociendo el compromiso solidario del pueblo vasco, y su contribución económica, de personas, de conocimiento y de relaciones.

**b)** Ha de ser participada e impulsada por la sociedad vasca: incorporando, junto a los agentes actualmente más activos en la cooperación, otros sectores sociales (respetando los principios de la Ley de Cooperación para el Desarrollo), con sus conocimientos y aprendizajes acumulados, que hagan suya y respalden la política pública de cooperación, en un marco de colaboración público-privada, en el ámbito de la Ley 1/2007, de Cooperación para el Desarrollo.

**c)** Ha de ser intensiva en conocimientos y relaciones: poniendo en relación sociedades, a través del fortalecimiento de capacidades y la cooperación técnica (en áreas por ejemplo como sanidad, lenguas, educación, formación profesional, políticas sociales, innovación, participación democrática y rendición de cuentas, desarrollo local sostenible, etc...) de manera bidireccional (desde la convicción de que no sólo tenemos experiencias para compartir, sino experiencias de las que aprender).

**d)** Ha de ser orientada al aprendizaje: fomentando la investigación, la innovación, la evaluación y la comunicación.

**9.** Para consolidar una política pública de cooperación descentralizada con identidad transformadora y avanzar en las cuatro dimensiones anteriores será necesario fomentar y avanzar en los siguientes aspectos:

**a)** Promover una política pública de cooperación, orientada al desarrollo humano sostenible y a la erradicación de la pobreza estructural desde un enfoque de derechos y de reducción de las desigualdades. Transversalmente, apostar por el fortalecimiento de las capacidades locales, la participación y la organización, la equidad de género, los derechos humanos, y la sostenibilidad ecológica y, sectorialmente, priorizar los derechos universales, la gobernanza democrática, el poder local, el desarrollo económico local, la protección y conservación

ambiental y el empoderamiento de las mujeres. Además, definir el valor añadido de la cooperación vasca en el ámbito de la acción humanitaria y potenciar la educación para la transformación social.

**b)** Poner en marcha procesos de revisión de los instrumentos de cooperación y de las Estrategias-país. Iniciar reflexiones en torno a las regiones y países prioritarios y las estrategias temáticas, analizando los sectores en los que la cooperación vasca puede ser más eficaz.

**c)** Aumentar la proactividad de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo a través de la cooperación directa, la dinamización de agentes, la presencia en espacios de coordinación y representación a nivel estatal, la internacionalización de la propia Agencia y la exploración de nuevos espacios (Unión Europea, Sistema de las Naciones Unidas…). Además, es prioritario buscar la colaboración con otros gobiernos regionales y locales, así como con otras agencias de cooperación para el desarrollo de otros países, generando alianzas de cooperación, intercambios y aprendizajes entre pares y desarrollando experiencias conjuntas o proyectos-piloto. Deberá buscarse proactivamente, al desarrollar actividades en estos nuevos ámbitos de relación estratégica, la coordinación y complementariedad temática, metodológica y/o geográfica con los actores actualmente más activos en la cooperación que se enmarca en la ley 1/2007.

**d)** Potenciar y coordinar una política pública interdepartamental e interinstitucional, que apueste por la coherencia de políticas, e impulsar los espacios de participación ya creados -como el Consejo Vasco de Cooperación y la Comisión Interinstitucional-, que abra nuevos espacios para la proactividad de la Agencia Vasca indicada en el apartado inmediatamente anterior.

**e)** Facilitar espacios de formación y de aumento de capacidades, que ayuden a repensar el rol de la cooperación descentralizada vasca y sus agentes, en el marco de los nuevos retos del desarrollo.

**f)** Generar una propuesta de evaluación, con el objeto de: (i) conocer el impacto de acciones acompañadas en el largo plazo; (ii) tener insumos para la toma de decisiones; (iii) obtener aprendizajes y generar conocimiento.

**g)** Consolidar a la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo como un agente estratégico de referencia en el ámbito de la cooperación descentralizada tanto en Euskadi como a nivel estatal e internacional,

apostando, para ello, por: (i) completar y consolidar el equipo humano; (ii) revisar los procedimientos para racionalizar los recursos y liberar capacidades del equipo para aportar mayor valor añadido; (iii) promover la formación continua.

**10.** Euskadi, al igual que la sociedad mundial en su conjunto, vive una situación económica compleja. Sin embargo, el Gobierno Vasco renueva su apuesta por la política de cooperación para el desarrollo y por su compromiso ético y político en la lucha contra la pobreza estructural y la desigualdad en el mundo. En este ámbito, las previsiones económicas que se manejan en el período de cobertura del Plan Director Cuatrienal 2014-2017, serían las siguientes:

| 2014 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|
| 35.026.830 € | 40.000.000 € | 50.000.000 € | 55.000.000 € |

# GARAPENERAKO LANKIDETZAREN URTE ANITZEKO (2014-2017) PLANGINTZA ESTRATEGIKOAREN ORIENTABIDE NAGUSIEN PROPOSAMENA

Eusko Jaurlaritzak, bere erantzukizunak baliatuz, dokumentu honen edukiaren bitartez, garapenerako lankidetzari buruz duen filosofia irudikatu nahi du; plangintza estrategikoaren Orientabide Nagusien bitartez, 2014-2017 aldiko Lau Urteko Gidaplanaren edukian hezurmamituko da plangintza estrategiko hori. Urte Anitzeko Plangintza Estrategikoaren Orientabide Nagusiek lerro estrategikoak eta ekonomikoak deskribatzen dituzte; Lau Urteko Gidaplanak, bere formulazioan, lerro horiekin bat etorri beharko du, batetik, alor horretan eskudunak diren organoek –funtsean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak– gauzatu beharko dituzten ekintzei dagokionez, eta bestetik, garapenerako lankidetzarekin lotuta dauden edo egon daitezkeen jardunak gauzatzen dituzten Jaurlaritzaren bestelako sail eta/edo erakundeei dagokien gobernu-jarduera guztiari gagozkiola, horren guztiaren xedea ekimen guztiei koherentzia-esparru bat ematea izanik. Jarraian, Garapenerako Euskal Lankidetzaren 2014-2017 aldiko Lau Urteko Gidaplana sortzeko prozesuan kontuan hartu beharko diren hainbat kontsiderazio, hausnarketa eta jarraibide irudikatuko ditugu, orientabide nagusi gisa balio baitute.

1. Eusko Jaurlaritzaren jarduerak garapenerako lankidetzaren eta haren ezinbesteko plangintza estrategikoaren esparruan markatzen duen nortasuna ez da egoeraren araberako hausnarketaren isla hutsa, ezta gobernu-izaerakoa ere. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak, herritarren ordezkaritzaren organo den aldetik, garapenerako lankidetzak bere politikak egikaritzean ezinbestean lotu beharreko esparru filosofiko eta ideologikoa ezarri du, lege-mailako hainbat arauren bitartez: Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legea, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunari buruzko abenduaren 28ko 14/2007 Legea, eta azkenik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortzen eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legea. Arau horiek garapenerako euskal lankidetzaren nortasun-alderdiak ez ezik, funtsezko eskumen-alderdiak ere identifikatzen dituzte, Eusko Legebiltzarra ezinbesteko

lankide gisa txertatuz, Urte Anitzeko Plangintza Estrategikoaren Orientabide Nagusiak onetsi behar dituen organoa dela kontuan hartuz.

**2.** Lehendik ere islatu denez, Eusko Legebiltzarrean onetsitako arau horiek zehazten dute garapenerako lankidetzaren esparruko ekintza politikoa. Arau horien sorkuntzari dagokionez, euskal gizarteak, funtsean, Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen eta solidaritate-mugimenduen lanaren bitartez, bere gain hartutako gizarte-konpromisoaren ondorioz sortutako eskari kolektiboa dugu sorkuntza horren jatorria. Legegileak aitorturiko konpromiso eta bultzada horri esker, GGKE horiek erantzukizun handia dute gaur egunean, alor horretako gobernu-politikak diseinatzeko eta egikaritzeko prozesuan zuzeneko eragina izateko duten gaitasunari dagokionez; izan ere, besteak beste, Garapen Lankidetzarako Euskal Kontseiluan parte hartzen dute modu paritarioan GGKE horiek, eta horrez gainera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Batzorde Zuzentzailean (gobernu-organorik garrantzitsuena, gaitasun betearazlea duena) ere sartu dira. Gizarte zibilean elkarte-sare zabala eta askotarikoa dago gaur egun esparru horretan, eta sare horren bitartez garatzen eta egikaritzen dira lankidetza-tresna gehienak; izan ere, horixe da garapenerako euskal lankidetzaren nortasun-ezaugarrietako bat. Bultzadak, konpromisoak, aitorpenak eta erantzukizunak zehazten dute, hain zuzen ere, gizarte zibilak horrelako politiken zuzendaritza- eta egikaritze-esparruan duen harreman estua, eta horrez gain, horren indar eztabaidaezinetako bat ere bada.

**3.** Mundu osoan gertatutako aldaketak direla-eta, erabaki-egiturak eta erabaki-printzipioak aldatu behar dira, eta baita benetako eskariei eman beharreko erantzunak egokitu ere. Horregatik, indarreko ordenamendu juridikoaren esparruan, eta hala badagokio, sar litezkeen aldaketekin, hausnarketa-prozesu bati hasiera eman beharko diogu, politika publikoen funtsezko praktikotasuna bermatzeko, prozedurak benetan hobetuz helburuen lorpena optimizatzea ahalbidetuko duten arauzko eta egiturazko neurriak proposatzeaz gain. Horri dagokionez, lankidetza deszentralizatuaren espezifikotasuna eta euskal gizartearen nortasuna kontuan hartuta, eta jarrera kritikoa geure gain hartuta, ezinbestean egokitu behar dugu gure jarduna, eta baita egungo mundu-testuinguruarekin giltzatu ere; horretarako, bereziki jarraitu behar diegu sortzen ari diren joera globalei. Zehazki, honako hauek nabarmendu behar ditugu: Post 2015 Agendaren prozesua, Milurtekoko Garapen Helburuak eta gero; Garapenerako Laguntza Ofizialaren finantzaketari buruzko prozesua; Busango

Foroaren ondoren laguntzak izandako eraginkortasunaren inguruko prozesua; lankidetza deszentralizatuaren garapena eta finkapena; gorabideko herrialdeen agerpena lankidetzaren esparruan; eragile berriak lankidetzan sartu izana, eta garrantzi handiko beste hainbat gai, esate baterako, zerga-sistema eta garapena, klima-aldaketa, ekosistemak eta energia-balantzea, eta abar. Euskal lankidetza, duen espezifikotasuna eta berezko nortasuna aintzat hartuz, gaur egunean garapenerako lankidetzaren esparruan globalki gauzatzen ari den paradigma-aldaketan birkokatzen ari da.

**4.** Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legean ezarritako printzipio- eta egitura-sarean txertatzen da, eta Agentziaren jarduerak balio-katalogo zabal bat sortzen du, eta horren ondorioz, garapenerako euskal lankidetza “Basque Country Estrategia” deritzonaren funtsezko osagai bihurtzen da. Hori aintzat hartuta, Agentziaren ekintza Euskadiren nazioarteko proiekzioaren zati garrantzitsu bat da; proiekzio hori kanpoko ekintzaren erantzukizun-arloaren barnean sartzen da, euskal gizarteak munduko egiturazko pobrezia desagerraraztearen eta desparekotasuna desagertzearen aldeko solidaritate indibiduala, kolektiboa eta instituzionala transmitituz.

**5.** Koherentzia politikoari jarraiki, arlo horretako gobernu-ekintza, eta, hortaz, haren plangintza estrategikoak ahaleginak egin behar ditu Gobernuak bere 2012-2016 aldiko Gobernu Programan aipatzen dituen helburu nagusiak lor daitezen:

**a)** Sakontzea, batetik, garapen-lankidetzako politikaren efizientzian, eta bestetik, politika horrek giza eskubideen sustapen eta defentsarekin izan beharreko loturan; horretarako, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren balioa azpimarratuko da eta Garapenerako Lankidetzaren Gidaplan Estrategiko berri bat onetsiko da.

**b)** Europar Batasunarekiko, Nazioarteko Erakundeekiko eta Nazioarteko Lankidetza Agentziekiko harremanak estutzea, baterako jarduerak egiteko ez ezik, euskal erakundeekin finantzaketa- eta lankidetza-bide berriak ahalbidetzeko ere bai.

**c)** Elkarte-sarea indartzea, eta horretarako, Lankidetzarako Euskal Kontseilua bultzatzea.

**d)** Lankidetzako “jardunbide egokiak” partekatzea, ekimen berritzaileak bultzatuz, eta lankidetza hobetzeko koordinazioa areagotzea, Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordea sendotuz.

Gobernu-ekintzaren esparru horretan, Orientabide Nagusi hauek, esan dugun bezala, erreferentziazko esparru gisa balio behar dute, garapenerako lankidetzarekin lotuta dauden edo egon daitezkeen departamentuen (hala nola, gazteria, osasuna, genero-berdintasuna, hizkuntza-politika, eta abar) ardura duten Administrazio Orokorreko eta Erakunde Administrazioko organoek, bakoitzaren eskumenen barruan, dagozkien politikak abiaraz ditzaten, batetik, politika horiek finkatzeko eta zeharkako gisa ezartzeko, eta bestetik, haien arteko elkarreragina eta koordinazioguneak indartzeko.

**6.** Helburuen lorpenak izan beharreko emaitzen optimizazioak, lorpen hori jasotzen duen plangintza estrategikoaren ezaugarriak kontuan hartuz, 1/2007 Legean definitutako lankidetza-agenteen konpromiso koordinatuak eskatzen ditu. Izaera publikoa dutenen artean, oso garrantzitsutzat jotzen da honako hauen koordinazioa indartzea: Eusko Jaurlaritza, Foru Erakundeak, Lurralde Historikoetako hiriburuetako Udalak, eta haien elkarteak (EUDEL eta Euskal Fondoa); erakunde bakoitzak bere autonomia baliatzearen testuinguruan sinergiak sortzea da horren helburua. Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordea eta horretarako sortutako mahai teknikoak elkarlanerako gune pribilegiatua dira, baina elkarrizketarako eta lankidetzarako bestelako guneak ere bultzatuko dira, hainbat erakunderen arteko baterako ekintzei bide emateko.

**7.** Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak estatuko topaketarako guneetan eta koordinazio deszentralizatuko guneetan maiz parte hartzen jarraituko du, beste Autonomia Erkidego batzuekin nahiz Estatuko Administrazioarekin, eta horretaz gain, nazioarteko politika eta ekimenei egin beharreko jarraipena garatzen ere jarraituko du, politika eta ekimen horiekin koordinatzeko eta lerrokatzeko xedea izanik eta bere gune propioa bilatuz eta aldarrikatuz.

**8.** Metatutako eta oso ongi balioetsitako esperientzia baliotsua oinarritzat hartuta, garapenerako lankidetzaren helburua zera da, politika publiko koherente, koordinatu eta kalitate handiko bihurtzea, herrialderako eta herritarrentzako balio handia izanik egiturazko pobrezia desagerraraztearekin eta gizarte-eraldaketa

eta giza garapen iraunkorra lortzearekin konprometituta egongo dena, betiere honako dimentsio hauekin:

- **a)** Solidarioa izan behar du: euskal herritarren konpromiso solidarioa eta haien ekarpen ekonomikoa, pertsonena, jakintzarena eta harremanena aitortuko du.
- **b)** Euskal gizarteak bertan parte hartu behar du, eta baita hura sustatu ere: lankidetzan gaur egun aktiboenak diren agenteekin batera, beste hainbat gizarte-sektore ere txertatu behar ditu (betiere Garapenerako Lankidetzari buruzko Legean jasotako printzipioak beteta), horiek dituzten jakintza eta ikaskuntza metatuekin; lankidetza-politika publikoa beren gain hartu beharko dute horiek, elkarlan publiko-pribatuko esparru batean, Garapenerako Lankidetzari buruzko 1/2007 Legearen eremuan.
- **c)** Jakintza eta harremanetan intentsiboagoa izan behar du: eta horretarako, sozietateak harremanetan jarriko ditu, gaitasunak eta lankidetza teknikoa zenbait alorretan indartuz, hala nola osasunean, hizkuntzetan, hezkuntzan, lanbide-heziketan, gizarte-politiketan, berrikuntzan, partaidetza demokratikoan eta kontuak ematean eta abarretan, betiere modu aldebikoan, hots, partekatzeko esperientziak izateaz gain, esperientzia ikasgarriak ere baditugulako uste osoa izanda.
- **d)** Ikaskuntzara orientatuta egon behar du: ikerketa, berrikuntza, ebaluazioa eta komunikazioa sustatuko ditu.

**9.** Nortasun eraldatzailea izango duen lankidetza deszentralizatuko politika publikoa finkatzeko eta aurreko lau dimentsioetan aurrera egiteko, ezinbestekoa izango da honako alderdi hauek bultzatzea eta alderdi horietan aurrera egitea:

- **a)** Lankidetza-politika publikoa sustatzea, giza garapen iraunkorra lortzeko eta egiturazko pobrezia desagerrarazteko jomuga duena, betiere giza eskubideen eta desparekotasunak murrizteareN ikuspegian oinarrituta. Zeharka, tokiko gaitasunak indartzearen, partaidetzaren eta antolakuntzaren, genero-ekitatearen, giza eskubideen eta iraunkortasun ekologikoaren aldeko apustua egitea, eta sektoreei dagokienez, giza eskubideak, gobernantza demokratikoa, tokiko boterea, tokiko garapen ekonomikoa, ingurumen-babesa eta -kontserbazioa eta emakumeen ahalduntzea lehenestea. Horrez gainera, euskal lankidetzak ekintza

humanitarioaren esparruan duen balio erantsia zehaztea eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza bultzatzea.

**b)** Lankidetza-tresnak eta Herrialde-estrategiak berrikusteko prozesuak abiaraztea. Lehentasunezko eskualde eta herrialdeen eta estrategia tematikoen inguruko gogoetak hastea, eta euskal lankidetza zer sektoretan izan daitekeen eraginkorragoa aztertzea.

**c)** Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren proaktibitatea areagotzea, zuzeneko lankidetza gauzatuz, agenteak dinamizatuz, estatuan koordinazio eta ordezkaritzarako dauden guneetan egonez, Agentzia nazioartekotuz eta gune berriak esploratuz (Europar Batasuna, Nazio Batuen Sistema, eta abar). Halaber, lehentasunezkoa da eskualde- eta toki-gobernuekiko elkarlana bilatzea, eta baita beste herrialde batzuetan dauden garapenerako lankidetzako beste agentzia batzuekiko elkarlana ere; parekideen arteko lankidetza-aliantzak, elkartrukeak eta ikaskuntzak sortuz eta baterako esperientziak eta proiektu pilotuak garatuz. Harreman estrategikoko eremu berri horietan jarduerak garatzerakoan, honako hau lortu beharko da proaktiboki: 1/2007 Legean biltzen den lankidetzan gaur egun aktiboenak diren aktoreekiko koordinazioa eta gai-arloko, metodologia-arloko eta/edo geografia-arloko osagarritasuna.

**d)** Sail arteko eta erakunde arteko politika publikoa sustatzea eta koordinatzea, politiken koherentziaren eta lehendik sortutako partaidetzaguneak (Lankidetzarako Euskal Kontseilua eta Erakunde arteko Batzordea, esaterako) bultzatzearen aldeko apustua egiten duen eta aurreko atalean aipatutako Euskal Agentziaren proaktibitatea gauzatzeko gune berriak irekiko dituen politika publikoa, alegia.

**e)** Prestakuntzarako eta gaitasunak areagotzeko jomuga izanik euskal lankidetza deszentralizatuaren eta horren agenteen eginkizuna berriz planteatzen lagunduko duten guneen sorkuntza erraztea, garapenaren erronka berrien esparruan.

**f)** Ebaluazio-proposamen bat sortzea, honako helburu hauekin: (i) laguntza bidezko ekintzek epe luzean izan dezaketen eragina ezagutzea; (ii) erabakiak hartzeko inputak edukitzea; (iii) ikaskuntzak lortzea eta jakintza sortzea.

**g)** Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia finkatzea, lankidetza deszentralizatuaren esparruan erreferentziazko agente estrategiko gisa, Euskadin nahiz estatuan eta nazioartean, eta horretarako, honako

hauen aldeko apustua egitea: (i) giza taldea osatzea eta finkatzea; (ii) baliabideak arrazionalizatzeko eta taldearen gaitasunak askatzeko prozedurak berrikustea, balio erantsi handiagoa ekartzeko; (iii) etengabeko prestakuntza sustatzea.

**10.** Euskadin, munduko gizarte osoan bezala, egoera ekonomiko korapilatsua bizi dugu. Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzak garapenerako lankidetzako politikaren eta munduan egiturazko pobreziaren eta desparekotasunaren kontrako borrokan duen konpromiso etiko eta politikoaren aldeko bere apustua berritu du. Esparru horretan, Lau Urteko 2014-2017ko Gidaplana betetzeko aldian erabiltzen diren aurreikuspen ekonomikoak honako hauek ditugu:

| 2014 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|
| 35.026.830 € | 40.000.000 € | 50.000.000 € | 55.000.000 € |